

3

OSASUNA

SANIDAD

Emma Sobremonete de Mendicuti (*)

Jon Leonardo ()**

(*) **Osasun Publikoko eta Gizarte Lanetako irakaslea. Deustuko Unibertsitatea.**

Profesora de Salud Pública y Trabajo Social. Universidad de Deusto.

(**) **Soziologian katedraduna. Deustuko Unibertsitatea.**

Catedrático de Sociología. Universidad de Deusto

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. LA C.A. DE EUSKADI EN EL MARCO DE LAS POLÍTICAS DE SALUD
3. ESTADO DE SALUD EN EUSKADI: ANÁLISIS DE LA SALUD PERCIBIDA
4. EVOLUCIÓN DE LA SALUD PERCIBIDA Y DESIGUALDADES SOCIALES EN SALUD EN LA C.A. DE EUSKADI (1997-2002)
5. RADIOGRAFIANDO LA ENFERMEDAD A TRAVÉS DE LA MORBILIDAD HOSPITALARIA
6. EL GASTO SANITARIO
 - 6.1. Financiación del gasto sanitario
 - 6.2. Los indicadores de gasto
7. RECURSOS SANITARIOS Y ACTIVIDAD ASISTENCIAL
 - 7.1. Actividad hospitalaria
 - 7.2. Recursos hospitalarios
 - 7.3. Las consultas hospitalarias
8. LA ASISTENCIA EXTRAHOSPITALARIA PÚBLICA
9. LA C.A. DE EUSKADI EN LA ESCENA INTERNACIONAL. ALGUNOS DATOS COMPARATIVOS
10. A MODO DE CONCLUSIONES
11. BIBLIOGRAFÍA

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. EUSKAL AE OSASUN-POLITIKEN ALORREAN
3. OSASUN-EGOERA EUSKADIN: OSASUN HAUTEMANAREN AZTERKETA
4. HAUTEMANDAKO OSASUNAREN EBOLUZIOA ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK OSASUNEAN EUSKAL AEn (1997-2002)
5. GAIXOTASUNA ERRADIOGRAFIATUZ OSPITALEETAKO ERIKORTASUNAREN BIDEZ
6. GASTU SANITARIOA
 - 6.1. GASTU SANITARIOAREN FINANTZAKETA
 - 6.2. GASTUAREN ADIERAZLEAK
7. BALIABIDE SANITARIOAK ETA ASISTENTZIA-JARDUERAK
 - 7.1. Ospitale-jarduera
 - 7.2. Ospitaleetako baliabideak
 - 7.3. Ospitaleetako kontsultak
8. OSPITALEZ KANPOKO ASISTENTZIA PUBLIKOA
9. EUSKAL AE NAZIOARTEAN. DATU KONPARATIBO BATZUK
10. ONDORIO GISA
11. BIBLIOGRAFIA

1. INTRODUCCIÓN

El fenómeno salud/enfermedad ha sido y sigue siendo una de las principales preocupaciones de la historia, no en vano sabemos que de la salud depende no sólo el proyecto de vida personal sino el desarrollo económico y social. Las consecuencias derivadas de los vínculos encontrados entre desarrollo socioeconómico y salud han sido recogidos de manera recurrente por la OMS quien, apoyándose en los resultados de las investigaciones internacionales más punteras, ha ido lanzando sistemáticamente desde su constitución formal múltiples mensajes para animar a todas las naciones del mundo a esforzarse por mejorar la salud de la población proponiendo diversas estrategias para conseguirlo. Salud para todos en el año 2000 fue una de las consignas más célebres con que la OMS expresó la necesidad de hacer efectivo el derecho a la salud en todas las regiones del mundo.

Pero el logro de un objetivo tan ambicioso no puede desentenderse del análisis de lo que, dentro de la comunidad científica, dió en llamarse a partir de los años 70, el estudio de los *factores determinantes de la salud* que son, ni más ni menos, que las cuatro grandes categorías donde quedan recogidas y sistematizadas todas las variables que, de una forma u otra, influyen y determinan la salud de manera diferencial entre grupos sociales, a saber: la biología, el medio ambiente físico y social, los estilos de vida y los servicios sanitarios.

A estas alturas, cuando nos encontramos haciendo inmersión en un nuevo siglo en el que las innovaciones tecnológicas y los hallazgos genéticos nos están haciendo concebir la posibilidad de lograr éxitos insospechados hasta la fecha en materia de salud, nos viene a la memoria lo ocurrido a comienzos del siglo XX cuando con los descubrimientos bacteriológicos se lograron salvar tantas vidas que se truncaban precocemente. Sin embargo, aun cuando los pasos que se van dando en la bio-tecno-medicina son de gigante, seguimos teniendo constancia de que la salud sigue estando distribuida de manera desigual entre pueblos y regiones.

Las últimas investigaciones sobre diferencias territoriales en salud ponen en evidencia que el estado de salud de la población está vinculado no sólo a la disponibilidad y calidad de sus recursos sanitarios sino también al modo en que su renta está distribuida. Mientras en los países desarrollados que disfrutaban de un grado de bienestar nada desdeñable la esperanza de vida al nacimiento ronda los 80 años, en muchos países africanos no alcanza los 40 años. Si datos tan escalofriantes nos ponen en evidencia que la pobreza es un factor determinante de la salud, todo sugiere que los países desarrollados no tendríamos mucho que temer, sobre todo teniendo en cuenta que nuestros sistemas de salud han alcanzado unos niveles de accesibilidad y de calidad sin parangón en la historia.

Sin embargo, las investigaciones epidemiológicas más recientes muestran cómo una vez traspasado un umbral de ir-

1. SARRERA

Osasuna/gaixotasuna fenomenoa izan da eta da historiako kezkarik nagusienetarikoa, izan ere, badakigu osasunaren mende daudela bizitza-proiektu pertsonala ez ezik garapen ekonomikoa eta soziala ere. Garapen sozio-ekonomikoaren eta osasunaren artean aurkitutako loturen ondorioak behin eta berriro jaso ditu OMEk, zeinak nazioarteko ikerketa puntakoan oinarrituta, formalki eratu zenetik sistematikoki hainbat mezu igorri dituen munduko nazio guztiak anima daitezen biztanleriaren osasuna hobetzen, eta hori lortzeko hainbat estrategia proposatu ditu. Denentzako osasuna 2000. urtean izan zen OMEk erabilitako lelorik ezagunenetakoa, adierazteko eskubide bat egia bihurtzeko zein nolako beharra zegoen: munduko eskualde guztietan osasunerako dagoen eskubidea egia bihurtzekoa, hain zuzen.

Baina xede hain anbiziotsu bat lortzea lotuta doa 70eko hamarkadatik erkide zientifikoan *osasunaren faktore determinatzaileak* deiturikoen azterketarekin. Faktore horiek dira talde sozialen artean osasuna modu desberdinean eragiten eta determinatzen duten aldagaiak bilduta eta sistematizatuta gertzen diren lau maila handiak: biologia, ingurumen fisikoa eta soziala, bizitza estiloak eta osasun zerbitzuak.

Garai honetan, mende berri batean sartzen ari garenean eta berrikuntza teknologikoen eta aurkikuntza genetikoen orain arte osasun arloan pentsatu ere egiten ez ziren arrakastak lortzeko aukera eskura jarri digutenean, XX. mende hasieran gertatutakoa etortzen zaigu gogora, aurkikuntza bakterologikoei esker hainbat bizi salbatu baitziren ordura arte salbaezinak zirenak. Baina, bio-tecno-medikuntzan urrats izugarriak ematen ari diren arren, badakigu osasunak desberdin banatuta jarraitzen duela herrien eta eskualdeen artean.

Eskualdeak kontuan hartuta osasunaren inguruan dauden azken ikerketek argi uzten dute biztanleriaren osasun-egoera osasun-baliabideak eskura izatearen eta horien kalitatearen mende dagoela, baina baita errenta banatuta dagoen moduaren mende ere. Herrialde garatuetan, kontuan hartzeko moduko ongizate-maila dutenetan, jaiotzean dagoen bizi-itxaropena 80 urte ingurukoa da, Afrikako herrialde askotan ez da 40 urtera iristen. Datu latz horiek argi uzten digute pobrezia faktore determinatzailea dela osasunean eta iradokitzen digute garatutako herrialdeek ez genukeela beldur handirik izan behar, batez ere kontuan izanda gure osasun-sistemek gaur egun duten irisgarritasun-maila eta kalitatea historian parearik gabeak direla.

Baina, ikerketa epidemiologiko berriek adierazten dute aberastasun-maila batetik gora herrialde bakoitzaren osa-

queza, el nivel de salud de cada país depende en gran medida de la manera en que su renta está distribuida, de los hábitos relacionados con la salud, y también de variables mucho más intangibles, pero no por ello menos importantes, como son las relaciones sociales. Por tanto, a estas alturas, nadie pone en cuestión que la salud es un indicador que refleja perfectamente la calidad de vida de una nación, su nivel de desarrollo económico y social y cómo no, su grado de equidad.

Desde esta perspectiva, no es extraño que a la hora de formular políticas para mejorar la salud de la población, los gobiernos adopten una perspectiva multidimensional que implica, no sólo invertir en recursos sanitarios, sino también en sus determinantes sociales, los cuales tienen, en última instancia, una enorme responsabilidad en la génesis y distribución de la salud y enfermedad.

La preocupación por estas cuestiones se manifiesta en el hecho de que durante las últimas décadas la problemática de salud haya escalado puestos en todas las agendas políticas, y, sobre todo, en las de los países occidentales donde el incremento del gasto sanitario para producir salud ha dado lugar a un debate generalizado sobre cómo hacer más eficiente la inversión en recursos destinados a la salud tratando de aunar políticas de contención del gasto que mejoren la gestión y organización de los servicios de salud, con la prestación de unos servicios sanitarios de calidad que den respuesta a las demandas y aspiraciones de una ciudadanía cuyas expectativas van *in crescendo*.

sun-maila hein handian dagoela herrialde horretako errenta banatuta dagoen moduaren mende, osasunarekin lotutako ohituren mende eta beste aldagai ukiezinagoen (baina ez garrantzi gutxiagokoen) mende, hala nola, harreman sozialen mende. Beraz, inork ez du zalantzan jartzen osasunak oso ongi adierazten duela nazio baten bizi-kalitatea, nazio horren garapen ekonomikoa eta soziala eta, nola ez, ekitate maila.

Ikuspegi honetatik ez da harrizkoa biztanleriaren osasuna hobetzeko politikak egitean gobernuek dimentsio anitzeko ikuspegia hartzea eta baliabide sanitarioetan inbertitzeaz gain determinante sozialetan ere inbertitzea, zeinak, azken batean, erantzukizun handia duten osasunaren eta gaixotasunaren hasieran eta banaketan.

Gai horien inguruan dagoen kezka agertu da honako gertara honetan: azken hamarkadetan osasunaren arazoak gora egin izanean agenda politiko guztietan, eta, batez ere, mendealdeko herrialdekoetan, non osasuna sortzeko gastu sanitarioak gora egin izanak eztabaida orokorra eragin duen osasunera bideratutako inbertsioak eraginkorrago egiteari buruz, osasun-zerbitzuen kudeaketa eta organizazioa hobetuko duten gastu-kontentzio politikak kalitatezko zerbitzu sanitarioen prestazioarekin bat egiten saiatuta; kalitate horrek hiritarren nahiei eta eskariei erantzungo die, nahiak *in crescendo* doazen honetan.

2. LA C.A. DE EUSKADI EN EL MARCO DE LAS POLÍTICAS DE SALUD

En Euskadi, la preocupación por la mejora de la salud y de los servicios sanitarios quedó perfectamente reflejada en la reflexión estratégica *Osasuna Zainduz* realizada a comienzos de la década de los 90, en la que además de ofrecer un cuadro muy completo sobre los factores internos y externos que estaban exigiendo un cambio dentro del sector sanitario, se plasmaron los compromisos políticos para los próximos años. Puestos los pilares esenciales para la transformación de la sanidad vasca con la publicación de la Ley de Ordenación Sanitaria en 1997, se crea el Sistema de Salud de Euskadi que, inspirándose en los modelos europeos más avanzados, apuesta por un modelo sanitario basado en los principios de universalidad, calidad, equidad y solidaridad. Del espíritu de la ley que se desprende del análisis detallado de su articulación es preciso destacar las siguientes cuestiones:

El compromiso del conjunto de los poderes públicos vascos con la salud de la ciudadanía desde una óptica multidimensional y, por tanto, intersectorial, que indica la asunción explícita de una perspectiva integral de la salud sustentada sobre la base del marco conceptual de sus determinantes sociales y de la responsabilidad personal que a todos nos compete a la hora de proteger y gestionar nuestra propia salud. En este sentido, la Ley apela a la necesidad de cooperar con otros sectores públicos cuya actividad está estrechamente relacionada con los resultados de salud como son: aquellos sistemas de protección social, educación, empleo, vivienda o servicios sociales..., cuyas acciones tienen consecuencias directas en la mejora de la salud de la población.

La apuesta por un *modelo público y universal* que asegure la protección de la salud a todos los residentes en Euskadi y garantice su acceso en igualdad de condiciones. Esta perspectiva, amén de garantizar la cobertura universal de los servicios de salud, abre la espita a un nuevo espacio de acciones dirigidas a la reducción de las desigualdades en salud que tienen su origen en las desigualdades sociales y que se expresan en diferencias de salud evitables y por tanto injustas.

Una *nueva faceta de gestión pública* que toma como referente los modos de gestión de las organizaciones privadas en un intento de hacer más eficiente y flexible la gestión y organización de los recursos sanitarios deudores de un modo de proceder rígido y burocratizado que deviene de un modelo de gestión pública muy común y enraizado en la mayoría de los sectores de la Administración Pública. Con el ánimo de superar dicho modelo, la Ley establece la separación entre las funciones de Aseguramiento y Financiación de los servicios sanitarios, correspondientes al Departamento de Sanidad, y las funciones de Gestión y Provisión de servicios sanitarios que corresponden al Ente Público Osakidetza, estableciendo el Contrato-Programa como el instrumento jurídico que regula las relaciones entre ambos.

El *protagonismo otorgado al cliente/usuario* del sistema que se convierte en el eje central sobre el que pivotan todas las acciones de salud. En este sentido y vinculado con lo expuesto anteriormente, el aseguramiento de la calidad mediante la incorporación de sistemas de gestión de calidad para la mejora continua se convierte en uno de los elementos esenciales para garantizar la adecuada prestación de servicios y el correcto funcionamiento de la organización.

2. EUSKAL AE OSASUN-POLITIKEN ALORREAN

Euskadin, osasuna eta zerbitzu sanitarioak hobetzeko zegoen kezka argi eta garbi islatu zen *Osasuna Zainduz* hausnarketaren estrategikoan, 90eko hamarkada hasieran egindakoan. Hausnarketa horretan oso ikuspegi zabala zegoen arlo sanitarioan aldaketak eskatzen zituzten barneko eta kanpoko faktoreei buruz eta horrez gain hurrengo urteetarako konpromiso politikoak islatu ziren. Euskal osasuna eraldatzeko funtsezko oinarriak Antolamendu Sanitarioaren Legearekin ezarri ziren 1997an, Euskadiko Osasun Sistema sortu zen, zeinak Europako eredurik aurreratuenetan inspiratuta eredu sanitario baten aldeko apustua egin zuen unibertsalitatea, kalitatea, ekitatea eta elkartasuna printzipioetan oinarritua. Lege horretako artikulua zehatz aztertuz gero ikusten den espirituan beharrezkoa da honako gaiak azpimarratzea:

Euskal botere publiko osoaren konpromisoa hiritarren osasunarekin dimentsio anitzeko optikatik, beraz, sektoreen arteko optikatik, adierazten duena osasunaren ikuspegi integrala beraien egiten dutela, bere determinatzaile sozialen markoan oinarritua eta denok dugun erantzukizun pertsonalean oinarritua, erantzukizun hori baitugu gure osasuna zaintzerakoan eta kudeatzerakoan. Zentzu horretan Legeak beste sektore publiko batzuekin kooperazioan aritzeko beharra aipatzen du sektore horien jarduera osasun-eremuekin oso estu lotuta dagoen kasuetan, hala nola: gizarte babeserako sistemak, hezkuntza, enplegua, etxebizitza edo gizarte zerbitzuak... horien ekintzek eragin zuzena baitute biztanleriaren osasuna hobetzean.

Eredu publiko eta unibertsalaren aldeko apustua. Euskadin bizi diren denen osasuna babestea ziurtatuko duena eta sartzeko baldintza berdinak bermatuko dituena. Ikuspegi horrek, osasun-zerbitzuak unibertsalki estalita egotea bermatzeaz gain, atea irekitzen dio ekintza-eremu berri bati osasunean dauden aldeak murriztera zuzendua. Alde horiek gizarteko desberdintasunetan dute jatorria eta saihestu daitezkeen eta, beraz, ekidin daitezkeen, osasun desberdintasunetan adierazten dira.

Kudeaketa publikoko fazeta berria erreferente gisa erakunde pribatuetako kudeaketa hartzen duena, baliabide sanitarioen kudeaketa eta antolaketa eraginkorrago eta malguago egiteko asmoz. Baliabide sanitario horiek jarduteko modu zurrin eta burokratizatuaren oinordekoak dira, Administrazio Publiko alor gehienetan oso ohikoa eta errotua dagoen kudeaketa eredu baten ondorengoak. Eredu hori gainditzeko asmoz, Legeak banandu egiten ditu Osasun Sailari dagozkion zerbitzu sanitarioetako Aseguratze eta Finantzazio funtzioak eta Osakidetza erakunde publikoari dagozkion zerbitzu sanitarioen zerbitzuen kudeaketa eta horniketa funtzioak, eta bien arteko harremanak arautzeko tresna juridikoa izateko kontratu-programa ezartzen du.

Sistemako *bezeroari/erabiltzaileari emandako protagonismoa*. Sistemako ardatz nagusi bihurtu da eta osasun jardura guztiak horrengana biratuta daude. Zentzu horretan eta aurrez azaldutakoarekin lotuta, kalitatea ziurtatzeko kalitate-kudeaketa sistemak sartzeari etengabeko hobekuntzarako funtsezko elementu bihurtu da zerbitzuak egoki eskaintzen direla eta erakundearen behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko.

En definitiva, las transformaciones suscitadas por la Ley de Ordenación Sanitaria en las formas de concebir la sanidad que se han traducido en diferentes estrategias tanto para mejorar la salud de la población como para mejorar la salud de la organización que señaló en su día el Osasuna Zainduz, han tenido, junto a los esfuerzos realizados por el Gobierno Vasco en otros ámbitos vinculados a la calidad de vida, sus efectos sobre el conjunto de la ciudadanía.

Pasados ya algunos años desde la publicación de la Ley/1997, la sanidad vasca se enfrenta a las consecuencias de su mayoría de edad y a la presión que siguen ejerciendo factores demográficos como el envejecimiento de la población de Euskadi, factores tecnológicos como las nuevas técnicas diagnósticas y terapéuticas, los cambios en los patrones de morbi-mortalidad, las transformaciones en la estructura familiar y en las actitudes sociales frente a la enfermedad y la salud, así como las aspiraciones crecientes de una ciudadanía cada vez más sensibilizada en el ejercicio de sus derechos.

Teniendo en cuenta que el objetivo del presente trabajo es ofrecer una panorámica de la salud en la C.A. de Euskadi, y dada la multiplicidad de aspectos susceptibles de ser analizados, describiremos a continuación la evolución de las dimensiones que, desde nuestro punto de vista, nos han parecido más importantes para dar cuenta de ello.

Antolamendu Sanitarioaren Legeak eraldaketak eragin ditu osasuna ulertzeko moduetan eta eraldaketa horiek estrategia bihurtu dira, nola biztanleriaren osasuna hobetzeko hala erakundearen osasuna hobetzeko, bere garaian Osasuna Zainduz-ek adierazi bezala. Bada, eraldaketa horiek eta Eusko Jaurlaritzak bizi-kalitatearekin lotutako beste arlo batzuetan egindako ahaleginek, eragina izan dute biztanleria osoan.

1997ko Legea argitaratu zenetik urte batzuk igaro ondoren, euskal sanitategiak aurre egin behar die adin nagusikoa izateari eta faktore demografiko batzuek oraindik ere egiten dioten presioari, hala nola Euskadiko biztanleria zahartzeari, diagnostikoetarako eta terapietarako teknika berriak bezalako faktore teknologikoei, erikortasun patroietako aldaketei, familia egiturako aldaketei eta gaixotasunaren eta osasunaren aurrean gizarteko jarreretan egondakoei, baita hiritarren gero eta nahi handiagoei ere, gero eta sentsibilizatuagoak euren eskubideak erabiltzen.

Kontuan hartuta lan honen helburua EAeko osasunaren panoramika eskaintzea dela, eta aztertzeke alderdi ugari dagoela gogoan izanda, gure ikuspegitik jakinarazteko garrantzitsuenak diren dimentsioen eboluzioa deskribatuko dugu ondoren.

3. ESTADO DE SALUD EN EUSKADI: ANÁLISIS DE LA SALUD PERCIBIDA

Entre los indicadores más utilizados para valorar el estado de salud de la población, el concepto de salud percibida ha sido el que goza de mayor aceptación. Se trata de un concepto subjetivo a través del cual las personas evalúan su situación global de salud basándose en su percepción interna. Entre las virtudes por las que se utiliza la variable *salud percibida* como criterio de comparación en los estudios internacionales se encuentra el hecho de que ha mostrado su asociación con numerosos resultados de salud, de utilización de servicios sanitarios¹ y, especialmente, como predictora de supervivencia². En la medida en que la salud es el resultado de diferentes determinantes socioeconómicos su tendencia refleja la evolución de nuestra sociedad, siendo ésta una de las principales razones por la que hemos estudiado el comportamiento de esta variable en función de ellos. Indudablemente los procesos sociales acaecidos durante las últimas décadas en nuestra sociedad han tenido su correlato en términos de salud tanto individual como colectiva.

Desde el punto de vista demográfico, la C.A. de Euskadi ha experimentado cambios importantes en los últimos años. Nuestra sociedad está envejeciendo progresivamente como resultado de la conjunción de las bajas tasas de natalidad y mortalidad. Aunque las tasas de natalidad descendieron entre 1975-1985 en 10 puntos, durante la década siguiente se han mantenido estables rondando los 7,5 nacidos vivos por 1000 habitantes. Sin embargo, como señala el Plan de Salud 2002-2010, la tasa bruta de mortalidad que estaba experimentando un descenso progresivo ha modificado su tendencia a partir de la década de los noventa subiendo 2 puntos desde entonces (8,7 fallecidos por 1.000 habitantes). La conjunción de estos factores ha producido un crecimiento vegetativo negativo que se ha visto agravado por un saldo migratorio también negativo durante los años 90 lo que ha dado como resultado que el volumen de la población vasca sea similar al de hace 25 años aunque con una estructura por edades muy diferente. Nos encontramos así ante un escenario demográfico caracterizado por el envejecimiento de la población y por la reducción de la población total, tendencias que, según las últimas proyecciones, apuntan a mantenerse³. El hecho de que la población no haya aumentado y que los recursos económicos disponibles en la C.A. de Euskadi se hayan ido incrementando progresivamente, ha supuesto que la renta per cápita disponible se haya incrementado por encima del 50% en los 10 últimos años.

En este sentido, la mejora de la calidad de vida alcanzada en la C.A. de Euskadi se refleja en su nivel de salud que se encuentra entre los mejores del mundo, como así lo atestigua el hecho de que la esperanza de vida al nacimiento de las mujeres vascas sea la segunda más alta del mundo. Igualmente, como se muestra en la tabla 1, la salud percibida⁴ de los

¹ Idler E.L., Benjamín, Y. (1997) Self-rate Health and Mortality: a Review of Twenty-seven Community Studies. *Journal of Health & Social Behavior* 38: 21-37.

² Kaplan, GA et al. (1988) Subjective State of Health and Survival in Elderly Subjects. *Journal of Gerontology* 43 (4) : 114-120

³ Plan de Salud 2002-2010. Departamento de Sanidad. Gobierno Vasco. Pág. 38.

⁴ La variable salud percibida se refiere a la autopercepción de la salud declarada por los sujetos encuestados. En este caso se ha evaluado preguntando: ¿cómo considera usted que es su salud? con las siguientes respuestas: 1. Muy mala. 2. Mala. 3. Regular. 4. Buena. 5. Muy buena. Ver Gobierno Vasco, **Encuesta de salud**, 2003.

3. OSASUN-EGOERA EUSKADIN: OSASUN HAUTEMANAREN AZTERKETA

Biztanleriaren osasun-egoera baloratzeko gehien erabilitako indikatzaileen artean hautemandako osasunaren kontzeptua da onartuena. Kontzeptu subjektiboa da eta horren bidez pertsonak euren osasun egoera globala ebaluatzen dute barne hautemaketan oinarrituta. *Osasun hautemana* aldagaia konparatzeko irizpide bezala erabiltzen da nazioarteko azterketetan bertute batzuk dituelako, besteak beste, osasun emaitza ugariarekin lotuta egotea, zerbitzu sanitarioen erabilpenarekin¹ eta, bereziki, biziraupena iragartzen duelako². Osasuna determinatzaile sozioekonomiko desberdinen emaitza den heinean, horren joerak gure gizartearen eboluzioa islatzen du, eta hori izan da, hain zuzen, aldagai hau determinatzaile horien arabera aztertzeo arrazoia. Azken hamarkadetan gure gizartearen geratutako prozesu sozialek korrelatua izan dute osasun mailan, nola banakoenean hala taldearenean.

Ikuspuntu demografikotik EAEk aldaketa garrantzitsuak izan ditu azken urteotan. Gure gizartea pixkanaka zahartzen ari da, jaiotza- eta heriotza-tasa baxuak egotearen ondorioz. Jaiotza-tasak 1975-1985 artean 10 puntu jaitsi ziren arren, hurrengo hamarkadan egonkor egon dira, 1.000 biztanleko 7,5 jaiotza baxuak gutxi gorabehera. Baina Osasun Plana 2002-2010ean adierazten denez, heriotza-tasa gordina pixkanaka beheraka zihoan arren, 90eko hamarkadaz geroztik joera hori aldatu egin da eta orduz geroztik 2 puntu igo da (8,7 hildako 1.000 biztanleko). Faktore horiek bat egitearen ondorioz, hazkunde begetatibo negatiboa egon da eta areagotu egin da, 90eko hamarkadan migrazio-saldoa ere negatiboa izan delako. Horren ondorioz, euskal biztanleriaren bolumena duela 25 urtekoaren antzekoa da, nahiz eta adinaren arabera egoera oso desberdina izan. Dugun egitura demografikoaren ezaugarriak dira biztanleria zahartzen joatea eta osoko biztanleriak behera egitea, eta joera horiek, azken proiektzioen arabera, mantentzera doaz³. Biztanleriak ez duenez gora egin eta EAEen eskura dauden baliabide ekonomikoek pixkanaka gora egin dutenez, eskura dagoen per capita errenta %50 baino gehiago hazi da azken 10 urteotan.

Zentzu horretan, EAEen lortutako bizi-kalitatearen hobekuntza bertako osasun-mailan islatzen da, munduko hoberenen artean baitago, eta horren lekuko da euskal emakumeen bizi itxaropena munduko bigarren handiena izatea jaiotzen direnean. Era berean, 1. taulan ikusten denez, euskal gizon eta emakumeen hautemandako osasuna⁴ Estatu espainiarreko

¹ Idler E.L., Benjamín, Y. (1997) Self-rate Health and Mortality: a Review of Twenty-seven Community Studies. *Journal of Health & Social Behavior* 38: 21-37.

² Kaplan, GA et al. (1988) Subjective State of Health and Survival in Elderly Subjects. *Journal of Gerontology* 43 (4) : 114-120

³ Osasun plana 2002-2010. Osasun Saila. Eusko Jaurilaritza. 38. or.

⁴ Osasun hautemana aldagaia inkestak beren buruari hautematen dioten osasuna da, aitortzen dutena. Kasu honetan, ebaluatzeo «zure osasuna nolakoa dela uste duzu?» galdetu da eta honako erantzun hauek zituen: 1. Oso txarra. 2. Txarra. 3. Erdipurdikoa. 4. Ona. 5. Oso ona. Ikus, Eusko Jaurilaritza, **Osasun inkesta**, 2003.

vascos y vascas se encuentra también entre los primeros puestos del Estado español con una puntuación de 395,98 en el ranking por Comunidades Autónomas. Según la Encuesta de Discapacidades, Deficiencias y Estado de Salud de 1999, sólo es superada por Ceuta, la Comunidad de Madrid, las Islas Baleares y Navarra.

lehenbiziko tokietan dago, 395,98 puntu ditu Autonomia Erki-degoen araberako rankingena. Ezgaitasunen, Urritasunen eta Osasun Egoeraren 1999ko Inkesta Nazionalaren arabera, Ceuta, Madrilgo Erkidegoa, Balear Uharteak eta Nafarroa bakarrik daude aurretik.

Ranking de salud percibida por Comunidades Autónomas, 1999

1

Osasun hautemanaren rankinga autonomia erkidegoka, 1999

	Osasun maila (%) Nivel de salud (%)					RANKINGA GUZTIZKO puntuazioa RANKING Puntuación TOTAL
	Oso ona Muy buena	Ona Buena	Erdipurdikoa Regular	Txarra Mala	Oso txarra Muy mala	
	5	4	3	2	1	
1 Ceuta	20,22	56,52	18,61	3,99	4,43	409,06
2 Madrid	23,52	53,01	18,79	3,88	1,09	399,88
3 Balears (Illes)	17,69	62,79	15,65	3,40	0,13	399,66
4 Navarra	15,30	57,15	21,05	5,31	0,73	397,88
5 Euskal AE / C.A. de Euskadi	24,63	55,31	15,84	3,56	0,67	395,98
6 C. Valenciana	17,67	57,39	19,96	4,81	0,16	395,96
7 Melilla	17,10	61,02	17,90	3,86	0,01	395,74
8 España	14,80	61,01	19,82	4,11	0,30	395,40
9 Andalucía	16,41	58,81	20,09	4,17	0,54	394,85
10 Cataluña	20,94	55,98	18,43	3,88	2,56	394,25
11 Aragón	21,74	56,02	17,87	3,66	2,23	393,50
12 Rioja (La)	20,33	54,80	18,59	5,52	2,08	392,45
13 Cantabria	2,60	38,81	36,89	18,94	2,75	390,99
14 Murcia	23,34	57,25	15,97	2,83	0,61	390,26
15 Extremadura	23,77	49,54	21,19	4,73	0,23	389,75
16 Canarias	20,38	60,52	16,20	2,52	0,28	387,61
17 Castilla y León	19,55	60,99	15,43	3,77	0,45	386,46
18 C. La Mancha	21,22	55,19	19,17	3,99	0,12	386,02
19 Asturias	28,54	55,36	12,74	3,37	0,00	379,62
20 Galicia	19,82	60,37	16,26	3,07	0,21	319,56

Iturria: INE. Ezgaitasunen, Urritasunen eta Osasun Egoeraren 1999ko Inkesta, 1999. Geuk egina.

Fuente: INE. Encuesta de Discapacidades, Deficiencias y Estado de Salud, 1999. Elaboración propia.

Estos datos indican que la salud percibida está fuertemente vinculada al desarrollo económico puesto que son las comunidades autónomas que se encuentran en los primeros puestos del ranking en términos de salud percibida quienes disfrutan de un PIB más elevado. El País Vasco ocupa en el año 1999 el quinto puesto, lo que le otorga una situación nada desdeñable. Un dato ilustrativo de esta excelente posición es que el porcentaje de ciudadanos vascos que declara tener una salud muy buena es de un 24,63%. Los datos comparativos sobre *salud percibida* en Europa publicados en el Informe de la Unión Europea en el 2003⁵ señalan que un 67,8% de los

Datu hauek adierazten dute hautemandako osasuna oso estu lotuta dagoela garapen ekonomikoari, izan ere, hautemandako osasunaren rankingean lehenbiziko postuetan dauden Autonomia Erkidegoak baitira BPG handiena dutenak. EAE bosgarren postuan zegoen 1999an eta horrek kontuan hartzeko egoera ematen dio. Kokapen on hau argitzen duen datu bat da oso osasun ona dutela esaten duten euskal hiritarren portzentajea %24,63koa dela. European hautemandako osasunaren datu konparatiboak Europar Batasunaren txostenean argitaratu ziren 2003an⁵ eta ikusten denez 15 urtez gorako hiritarren %67,8ak osasun ona edo oso ona duela uste

⁵ European Comisión. *The Health of Adults in the European Union*. Special Eurobarometer. (2003).

⁵ European Comisión. *The Health of Adults in the European Union*. Special Eurobarometer. (2003).

ciudadanos y ciudadanas mayores de 15 años consideran que su salud es buena o muy buena y que tan sólo el 5,7% de los europeos perciben su salud como mala o muy mala. Comparando estos datos con los que refleja la tabla anterior podemos observar que el porcentaje de vascos y vascas que valoran su salud como buena o muy buena es de casi un 80% y los que perciben su salud como mala o muy mala no llegan al 5% (4,2%) lo que sitúa al País Vasco en una situación de salud privilegiada dentro del contexto europeo.

du eta europarren %5,7ak bakarrik uste du osasun txarra edo oso txarra duela. Datu horiek aurreko taulakoekin alderatuz gero, osasun ona edo oso ona duten euskal gizon eta emakumeak ia %80 direla ikusiko dugu eta txarra edo oso txarra dutela uste dutenak ez dira %5era iristen (%4,2), beraz, EAE osasun-egoera pribilegiatuan dago Europako testuinguruan.

4. EVOLUCIÓN DE LA SALUD PERCIBIDA Y DESIGUALDADES SOCIALES EN SALUD EN LA C.A. DE EUSKADI (1997-2002)

Como hemos visto anteriormente las transformaciones habidas en el lustro 1997-2002 muestran los cambios experimentados en la salud percibida de la población vasca. La mejora paulatina de las condiciones de vida ha influido favorablemente en la evolución de la salud percibida de la población

Evolución de la salud percibida en la C.A. de Euskadi

2

4. HAUTEMANDAKO OSASUNAREN EBOLUZIOA ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK OSASUNEAN EUSKAL AEN (1997-2002)

Aurrez ikusi dugunez, 1997-2002 bosturtekoan egondako aldaketek euskal biztanleriak hautemandako osasunean izandako aldaketak adierazten ditu. Bizi-baldintzak pixkanaka hobetu izanak aldeko eragina izan du euskal biztanleriak hautemandako osasunean eta 2. taulan ikus daitekeenez,

Hautemandako osasunaren eboluzioa Euskal AEn

	1997 Batez beste ¹ Media	2002 Batez beste ¹ Media	«Z» balio tipifikatua Valor tipificado «Z»	Esanahia Significación
I. Generoa / Género				
Gizonak / Hombres	2,94	2,83	4,36	***
Emakumeak / Mujeres	2,95	2,92	1,34	
II. Ikasketa-maila / Nivel de instrucción				
Alfabetatu gabeak / Analfabetos	3,45	3,48	-0,12	
Ikasketa gabeak / Sin estudios	3,43	3,31	1,43	
Lehen mailako ikasketak / Estudios primarios	3,2	3,19	0,38	
Eskola-graduatua / Graduado escolar	2,82	2,81	0,26	
BBB/Lanbide heziketa / B.U.P./Profesionales	2,71	2,66	0,6	
Tekniko unibertsitarioak / Técnicos universitarios	2,72	2,64	1,65	
Goi mailako unibertsitarioak / Universitarios superiores	2,56	2,53	0,61	
III. Lan egoera / Situación laboral				
Lanean / Trabajando	2,8	2,71	3,87	***
Langabezian / En paro	2,84	2,78	0,84	
Lehen enplegua / Primer empleo	2,52	2,2	2,09	
Erretiratuak / Jubilados	3,28	3,27	0,24	
Ikasleak / Estudiantes	2,48	2,36	2,46	***
Etxeko lanak / Labores del hogar	3,11	3,12	-0,31	
IV. Egoera sozio-ekonomikoa / Condición socioeconómica				
Goi maila / Clase alta	2,67	2,63	0,89	
Erdi-goi maila / Clase media-alta	2,73	2,75	-0,42	
Erdi maila / Clase media	2,93	2,82	2,42	
Erdi-behe maila / Clase media-baja	3,03	2,94	3,88	***
Behe maila / Clase baja	3,07	3,07	0	
V. Adina / Edad				
16-24	2,56	2,4	3,93	***
25-44	2,75	2,63	4,69	***
45-64	3,09	3,03	2,06	***
≥ 65	3,3	3,27	0,85	
Euskal AE / C.A. de Euskadi	2,95	2,88	4,22	***

¹ Balioak honela doaz: 1. Bikaina; 2. Oso ona; 3. Ona; 4. Erdipurdikoa eta 5. Txarra.

Los valores oscilan del modo siguiente: 1. Excelente; 2. Muy buena; 3. Buena; 4. Regular y 5. Mala.

*** Z esanguratsua, konfiantza mailako %95ean.

Z significativas al 95% de nivel de confianza.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, EAEko osasun inkestak.

Fuente: Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, Encuestas de Salud de la C.A. de Euskadi.

vasca que, tal y como se aprecia en la tabla 2, en el transcurso de este período ha mejorado significativamente. Sin embargo, este aumento progresivo, común a todos los países desarrollados, no se distribuye por igual entre todos los grupos sociales, lo que conlleva la persistencia de diferencias socioeconómicas y, como se verá a continuación, al mantenimiento de desigualdades de salud.

Los datos de la tabla 2 no dejan lugar a dudas en cuanto a la mejora del estado de salud. La media de la salud percibida para el conjunto de la C.A. de Euskadi en 1997 era de 2,95 y en el año 2002 la media es de 2,88. La mejora experimentada en estos cinco años es estadísticamente significativa al 95% de nivel de confianza ($Z = 4,22$).

Es cierto que la percepción de la salud por parte de los sujetos es una variable subjetiva, compleja, que depende de numerosos factores, tanto interiores, propios del sujeto: estados de ánimo, circunstancias personales y vitales, como exteriores: situación de paro, inseguridad, deterioro medioambiental y otros. Sin embargo, el hecho de que la percepción general de la población haya mejorado tiene un significado especial dado, que si se tiene en cuenta, tal y como quedará de manifiesto más adelante, que uno de los determinantes más poderosos de la salud percibida es la «Edad» y si damos por supuesto que en el lustro transcurrido entre 1997 y 2002 la población vasca ha envejecido en esta misma proporción, la diferencia en términos de mejora de la salud es, si cabe, mucho más significativa.

Si tenemos en cuenta que las puntuaciones más bajas expresan un mayor grado de salud percibida, una lectura más atenta de los datos recogidos en la tabla 2 nos permite extraer una serie de conclusiones relativas a las diferencias más significativas por subgrupos:

La *edad*, *nivel cultural* y *clase social* son, por este orden, las variables que más incidencia tienen en el logro de puntuaciones elevadas en la escala de Salud percibida. Por orden de importancia se han obtenido las puntuaciones siguientes: *Estudiantes*, 2,36; *Jóvenes de 16- 24 años*, 2,40; *Universitarios Superiores*, 2,53 y *Clase Alta*, 2,63; lo que indica que se ha producido una mejora general en la salud percibida de la población vasca durante este período, y que son la edad y la clase social lo que establece mayores diferencias.

Comparando las puntuaciones en los dos momentos para un mismo subgrupo se observa una mejora significativa (ver tabla 2 en la columna «Significación») en los siguientes subgrupos: hombres, población ocupada, estudiantes, clase media-baja y en todos los grupos de edad hasta los 64 años.

Para concluir este apartado, es obligado mencionar que se han producido, en términos de mejoras, diferencias significativas entre grupos sociales. Éste es el caso de los hombres (a diferencia de las mujeres), que han expresado una sensible mejoría respecto a la situación de 1997. En aquel momento, la población masculina apenas se diferenciaba de la femenina, la media era de 2,94 para los primeros frente a 2,95 en el caso de las mujeres. En el 2002, en el caso de los hombres, la diferencia entre ambas puntuaciones se ha ampliado sensiblemente, pasando de una media de 2,94 a 2,83. No es extraño que el valor « $Z=4,36$ » sea una cifra estadísticamente significativa. Desde nuestro punto de vista esto indica un cambio sustancial en la autopercepción masculina en materia de salud que merece la pena explorar.

al di honetan modu esanguratsuan hobetu da. Baina pixkanakako gorakada hori garatuta herrialde guztietan gertatu den arren, ez da berdin banatzen gizarteko talde guztietan; horren ondorioz, alde sozio-ekonomikoek iraun egiten dute eta, beraz, ondoren ikusiko denez, osasunean aldeak daude.

2. taulako datuek argi uzten dute osasun egoera hobetu egin dela: EAEn 1997an hautemandako osasunaren batez bestekoa 2,95 zen eta 2002. urtean 2,88koa da. Bost urte horietan izandako hobekuntza estatistikoki esanguratsua da konfiantza mailaren %95ean ($Z = 4,22$).

Egia da subjektuek osasuna hautematea subjektiboa dela, konplexua, faktore askoren mende dagoela, nola barnekoak, subjektuarenak berezkoak (gogo-aldarteak, gorabehera pertsonalak eta bizitzakoak) hala kanpokoak (langabezia, segurtasun gabezia, ingurumenaren narriadura eta abar). Baina biztanleriaren hautemate orokorra hobetu izanak esanahi berezia du, izan ere geroago agerian geldituko denez, kontuan hartzen bada osasunaren determinatzaile indartsuenetakoa «Adina» dela eta segurutzat jotzen badugu 1997-2002 bost urteetan euskal biztanleria proportzio berdinean zahartu dela, osasun hobekuntzan egondako aldea askoz esanguratsua da, horrelakorik esan badaiteke behintzat.

Kontuan hartzen badugu puntuazio baxuenek hautemandako osasun maila handiagoa adierazten dutela, 2. taulako datuak zehatzago ikusiz gero zenbait ondorio atera ditzakegu alde esanguratsueni buruz azpitaldeen arabera:

Adina, *kultur maila* eta *gizarte-klasea* dira, ordena horretan, Hautemandako Osasunaren eskalan puntuazio altuak lortzeko eragin handiena dutenak. Garrantziaren arabera honako puntuazioak lortu dira: *Ikasleak*, 2,36; *Gazteak 16-24 urte*, 2,40; *Goi mailako unibertsitariak*, 2,53 eta *goi-klasekoak*, 2,63; horrek adierazten du euskal biztanleriaren hautemandako osasuna orokorrean hobetu egin dela aldi honetan eta adina eta gizarte-klasea direla alderik nabarmenenak ezarzen dituztenak.

Azpitalde berak bi uneetan dituen puntuazioak alderatuz gero, hobekuntza esanguratsua ikusten da (ikus 2. taula, «Esanahia» zutabea) azpitalde hauetan: gizonak, okupatutako biztanleria, ikasleak, erdi-behe maila eta adin talde guztiak 64 urte artekoak.

Atal hau amaitzeko beharrezkoa da aipatzea alde esanguratsua egon direla hobekuntzei dagokienean gizarteko taldeen artean. Horrela gertatzen da gizonetan (ez emakumeetan) nolabait hobekuntza adierazi baitute 1997an zuten egoerarekiko. Garai hartan gizonak ia ez ziren emakumeengandik bereizten, gizonen batez bestekoa 2,94koa zen eta emakumeena 2,95koa. 2002an gizonen kasuan, bi puntuazioen arteko aldea gehitu egin da, 2,94ko batez bestekotik 2,83ra igarota. Ez da harrizkoa « $Z=4,36$ » balioa zifra esanguratsua izatea estatistikari dagokienean. Gure ikuspegitik horrek aldateta substantziala adierazten du gizonek beraien buruen osasuna hautemateko garaian eta merezi du hori aztertzea.

Algo parecido sucede si nos fijamos en la variable *clase social*. Las diferencias, en términos de mejora son realmente espectaculares. A este respecto es importante observar que ha habido una mejora sustancial de la percepción de la salud en las clases medias y medias-bajas; la variación ha sido sensiblemente superior a la de los grupos superiores aunque, obviamente, éstos parten de mejores posiciones, por lo que su capacidad de mejora es sensiblemente inferior. ¿Qué significa esto?, a nuestro modo de ver que en el lustro 1997/2002, por circunstancias que desconocemos y que obviamente escapan a las pretensiones de este trabajo, existe una igualación al alza de la salud percibida de la población vasca, aumentando más si cabe el grado de homogeneización. Es posible pensar que la tendencia al alza de las condiciones de vida de las clases medias pueda conllevar una reducción de las diferencias socioeconómicas entre grupos sociales y, como consecuencia, una homogeneización de la salud percibida.

En cualquier caso, los datos confirman el hecho de la existencia de desigualdades en salud entre grupos sociales derivadas de inequidades según clase social, nivel educativo o género, lo que indica que el fenómeno de las desigualdades en el estado de salud de la población es un problema recurrente que se mantiene en todas las sociedades a pesar de la mejora general experimentada. Su presencia no hace sino poner de relieve que siempre los grupos sociales que ocupan los lugares más bajos en la escala social tienen peor salud. Se trata por tanto de un fenómeno que hunde sus raíces en la propia naturaleza de la estructura social y cuya reducción implica el desarrollo de acciones de discriminación positiva dirigidas precisamente a los colectivos que sufren las consecuencias de la desigualdad social y cuya salud se ve afectada injustamente por factores socioeconómicos susceptibles de ser evitados.

No es otra la razón por la que la OMS, haciéndose cargo de la trascendencia de este problema ha formulado entre sus objetivos prioritarios para el siglo XXI el logro de la equidad en salud. En Euskadi, el Departamento de Sanidad, aceptando la injusticia que suponen las desigualdades sociales en salud, ha introducido entre los objetivos estratégicos de su último Plan de Salud 2002-2010 la reducción de las diferencias en salud entre grupos socioeconómicos planteando para ello el desarrollo de una serie de acciones específicas dirigidas hacia los grupos más desfavorecidos. Como queda recogido en dicho Plan: *aumentar la calidad de vida mejorando la salud y reducir las desigualdades son los grandes desafíos que Euskadi espera alcanzar para el año 2010.*

Antzeko zerbait gertatzen da gizarte-klasea aldagaiari begiratzen badiogu. Aldeak, hobekuntzari dagokionez, sekulakoa dira. Garrantzitsua da ikustea funtsezko aldaketa egon dela osasuna hautematerakoan erdi mailan eta erdi-behe mailan; goi mailetakoa baino aldaketa apur bat handixeagoa izan da, nahiz eta horiek kokapen hobea eta hobetzeko gaitasun handixeagoa izan. Horrek zer esan nahi du?, gure iritziz 1997/2002 bosturtean, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik eta lan honen nahietatik kanpo daudenetatik, euskal biztanlerian hautemandako osasunak hobera berdintzeko joera duela, horren bidez homogeneizazio maila gehituta, horrelakorik egin badaiteke behintzat. Pentsa daiteke bizi-baldintzek gorako joera dutenez gizarteko taldeen artean alde sozio-ekonomikoak gutxitu egingo direla eta, ondorioz, hautemandako osasuna homogeneizatu.

Dena dela, datuek adierazten dute osasunean aldeak daudela gizarteko taldeetan gizarte-klasearen, heziketa-mailaren edo generoaren arabera. Horrek esan nahi du biztanleriaren osasun-egoeran egoten diren desberdintasunak behin eta berriro gertatzen den arazoa dela eta gizarte guztietan dagoela nahiz eta orokorrean hobetu egin den. Alde horiek agerian uzten dute gizarteko eskalan mailarik baxuenean dauden taldeek izaten dutela osasun txarrena. Fenomeno honen sustaiak, beraz, gizarte-egituraren izaeran bertan daude eta hori gutxitzeko beharrezkoa da diskriminazio positiboko jarduerak garatzea gizarteko desberdintasunen ondorioak jasaten dituzten taldeei zuzenduta, ekidin daitezkeen faktore sozio-ekonomikoek bidegabe eragiten baitie osasunean.

Arrazoi horregatik OMEk, arazo honen trantsendentziaren kargu eginda, XXI. menderako dituen lehentasunezko helburuen artean osasunean berdintasuna lortzea jarri du. EAEn Osasun Sailak onartu egin du gizarteko desberdintasunek osasunean duten justiziagabekeria, eta 2002-2010 Osasun Planeko helburu estrategikoetan sartu du talde sozio-ekonomikoen arteko osasun aldeak murriztea. Horretarako berriazko jarduera batzuk garatzea planteatu du talderik kalteuenei zuzenduak. Plan horretan jaso denez: *osasuna hobetuta bizi-kalitatea gehitzea eta desberdintasunak murriztea dira Euskadik 2010erako lortzea espero dituen erronka handiak.*

5. RADIOGRAFIANDO LA ENFERMEDAD A TRAVÉS DE LA MORBILIDAD HOSPITALARIA

Desde mediados del siglo XX las sociedades occidentales han experimentado una transformación espectacular en sus patrones de morbi-mortalidad. Tras los éxitos cosechados en la lucha contra las enfermedades infecciosas debido a la aplicación masiva del uso de antibióticos y a las medidas de inmunización, nuestras sociedades se han encontrado en los albores del siglo XXI enfrentadas al reto de la lucha contra las enfermedades no transmisibles cuya etiopatogenia es de carácter multidimensional. Los hallazgos sobre los factores de riesgo implicados en la aparición de este tipo de patologías, así como en su mantenimiento y reducción, indican que tras ellas se encuentran factores vinculados no sólo a las peculiaridades biológicas y a su variabilidad, sino también a los estilos de vida y hábitos de salud de cada sociedad relacionadas con los comportamientos, con las condiciones de vida físicas y sociales derivadas del desarrollo económico y social, y con la accesibilidad y calidad de los servicios de salud.

5. GAIXOTASUNA ERRADIOGRAFIATUZ OSPITALEETAKO ERIKORTASUNAREN BIDEZ

XX. mende erditik mendebaldeko gizarteetan aldaketa handia egon da gaixotze- eta heriotza-tasen patroietan. Gaixotasun kutsakorren aurkako borrokan izandako arrakasten ondoren, antibiotikoak eta immunizatze bitartekoak modu masiboan erabiltzearen ondorioz, gure gizarteak XXI. mendearen atarian kutsatzen ez diren gaixotasunei aurre egiteko erronka du, dimentsio anitzeko izaeradun etiopatogenia dutenei aurre egitekoa. Patologia mota horiek agertzeko zerikusia duten arrisku-faktoreei buruz egindako aurkikuntzek eta horien mantentze- eta murrizte-lanetan egindakoek adierazten dute atzetik berezitasun biologikoei eta horien aldakortasunari lotutako faktoreak ez ezik, gizarte bakoitzaren bizitza-estiloak eta osasun-ohiturei lotutakoak ere badaudela, jarrekin lotuak, baita garapen ekonomiko eta sozialen ondoriozko bizi-baldintza fisiko eta sozialei lotuak ere eta osasun-zerbitzuen irisgarritasunarekin eta kalitatearekin lotuak.

Evolución de la morbilidad hospitalaria según diagnósticos agrupados en la C.A. de Euskadi

3

Ospitaleetako erikortasunaren eboluzioa, Euskal AEn sailkatutako diagnostikoen arabera

	2000	2001	2002	2003	2004	Δ (%) 2004-2000
Zirkulazio sistemako gaixotasunak / Enfermedades sistema circulatorio	30.803	32.840	34.261	35.054	36.205	18
Digestio-aparatuko gaixotasunak / Enfermedades aparato digestivo	28.836	29.846	31.073	31.262	32.504	13
Nerbio sistemako eta zentzuen organoetako gaixotasunak / Enfermedades sistema nervioso y órganos de los sentidos	25.133	27.583	27.970	27.149	27.690	10
Neoplasiak (tumoreak) / Neoplasias (tumores)	20.768	22.661	24.048	24.231	24.823	20
Gorabeherak haurdunaldian, erditzean eta puerperioan / Complicaciones embarazo, parto y puerperio	20.867	21.855	22.860	24.175	24.780	19
Arnas aparatuko gaixotasunak / Enfermedades aparato respiratorio	23.288	21.261	24.105	24.574	24.595	6
Sistema osteo-mioartikularreko gaixotasunak / Enfermedades sistema osteo-mioarticular	20.691	22.342	23.310	23.528	24.000	16
Lesioak eta pozoitzeak / Lesiones y envenenamientos	20.271	20.949	21.330	20.756	21.414	6
Aparatu genitourinarioko gaixotasunak / Enfermedades aparato genitourinario	15.825	16.848	16.884	16.520	16.480	4
Gaizki definitutako sintomak, zeinuak eta egoerak / Síntomas, signos y estados mal definidos	10.215	10.684	11.278	11.709	12.004	18
Osasun egoeran eragina duten egoerak / Situaciones que influyen en el estado de salud	16.080	14.687	11.041	11.213	8.502	-47
Trastorno mentalak / Trastornos mentales	4.836	4.821	4.923	4.844	4.990	3
Gaixotasun endokrinoak, nutri. metab. trast. inm. / Enfermedades endocrina, nutri. metab. trast. inm.	3.469	3.694	3.890	4.032	4.053	17
Gaixotasun infekziosoak eta parasito-gaixotasunak / Enfermedades infecciosas y parasitarias	3.478	3.996	3.711	3.711	3.914	13
Azaleko eta azalaren azpiko ehunetako gaixotasunak / Enfermedades piel y tejidos subcutáneos	3.365	3.745	3.593	3.693	3.777	12
Odoleko eta organo hematopoietikoetako gaixotasunak / Enfermedades sangre y órganos hematopoyéticos	1.764	1.917	2.232	2.300	2.641	50
Sortzetiko anomaliak / Anomalías congénitas	2.122	2.285	2.158	2.156	2.340	10
Gaixotasun perinatal batzuk / Ciertas enfermedades perinatales	1.713	1.766	1.816	1.882	1.767	3

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Ospitaleetako erikortasun-estatistika.

Fuente: Eustat y Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco. Estadísticas de morbilidad hospitalaria.

Entre los indicadores más utilizados para conocer los patrones de morbilidad se encuentran los relativos a la morbilidad hospitalaria dado el alto grado de cumplimentación y calidad de los sistemas de registro. El número de altas hospitalarias agrupadas según los diagnósticos de la CIE (Clasificación Internacional de Enfermedades) durante el período 2002-2004 que se recogen en las tablas siguientes, dan una idea bastante aproximada de la magnitud de los grandes grupos de enfermedades por los que se producen los ingresos en los hospitales públicos y privados de la C.A. de Euskadi y de su evolución durante los últimos cuatro años.

